

**LOE ARGITARATU DA. AURREJUBILAZIOAK**

2006ko maiatzaren 4ko BOEn, 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoa (LOE) argitaratu da. Argitaratu denetik 20 eguneko epean indarrean jarriko da. LOE, Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzekeo dugun eskubidearen kontrako beste eraso bat da. Espainiatik eta Espainiarako dago pentsatuta, Euskal Herriak dituen erronkak eta beharrak ez dituelarik aintzat hartzen.

LABek egingo duen balorazio zehatzean sartu gabe, gaurko honetan azpimarratu nahi dugu, bereziki, irakaskuntza publikoan eragingo dituen 3 atal: ezarpena, irakaskuntzako funtzio publikoan sarbidea (oposaketak) eta aurrejubilazioak.

Lehenengo bi gaiei buruz, gauza gutxi dago esateko. Ezarpenak 5 urteko epea izango du eta etapa bakoitzeko antolakuntza eta curriculumak ezarri beharko diren garapen dekretuetan zehaztuko dira. Oposaketez, egitasmo orokorrak soilik: *“el acceso a la función pública docente se realizará mediante un procedimiento selectivo en el que, en la fase de concurso se valorarán la formación académica y, de forma preferente, la experiencia docente previa en los centros públicos de la misma etapa educativa, hasta los límites legales permitidos. La fase de oposición, que tendrá una sola prueba, versará sobre los contenidos de la especialidad que corresponda, la aptitud pedagógica y el dominio de las técnicas necesarias para el ejercicio de la docencia”*

AURREJUBILAZIOAK, Gizarte Segurantzako funtzionarioentzat

Gai honetan egon da aldaketa nagusia. Orain arteko proiektuan 6 hilabeteko epe bakar bat ezartzen zen **Gizarte Segurantzako funtzionarioek** MUFACEn sartzeko eskaera egiteko, aurrejubilazio eskubidea gauzatu ahal izateko.

Onartutako legearen arabera, **EZ DA EZER EGIN BEHARKO** AURREJUBILATZEKO ADINA (60 urte) IZAN ARTE. Adina betetzean, eta aurrejubilatzekeo beste betekizun guztiak betez gero (ikus LABen IRAKASBERRI berezia, 2006ko otsailekoa), MUFACEn sartzeko eskaera egingo da, beste tramiteekin batera, jubilazio efektuetarako soilik:

“DT II.5.- Los funcionarios de carrera de los cuerpos docentes a que se refiere esta norma, acogidos a regímenes de Seguridad Social o de previsión distintos del de Clases Pasivas, siempre que acrediten todos los requisitos establecidos en el apartado 1, podrán optar al momento de la solicitud de la jubilación voluntaria por incorporarse al Régimen de Clases Pasivas del Estado, a efectos del derecho a los beneficios contemplados en la presente disposición”

Laster bidaliko dizuegu AURREJUBILAZIOARI buruzko txostenaren zuzenketa, eragin den aldaketa hau kontuan hartuko duena.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Monreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 Irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia@ absindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 Irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 Irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	13 Marengo Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org